

EUSKARA DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN

Dionisio Aranzadi

Euskararen irakaskuntzak, euskaraz irakasteak,... urte luzetako bidea egin dute Deustuko Unibertsitatean, Bilbon zein Donostian ditugun kanpusetan. **Eusko Ikaskuntzaren XII**, Kongresu honek aukera paregabea eskaintzen digu gogoeta eta azterlanetarako. Unibertsitate-mai lan euskara irakasteak eta irakasgaiak euskaraz emateak gogo, amets eta ekimen ugari biltzeaz gainera, badiu berekin makina bat aje, oztopo eta eragozpen. Gogoeta hauek egitea eskatu didate eta, horregatik, Deustuko Unibertsitatean egindakoaren berri emateaz gainera, beharrezko deritzot gai hauen inguruan ditugun kezka eta ezinak hemen azaltzeari. Eskainiko al du gogoetaldiak berak argibiderik!

A. LEHENALDIA ETA ORAINA

Gaiak bere luze-zabalean hiru esparru nahiko mugatu izan ditzake azterketaldirako: euskara landu, euskara irakatsi eta euskaraz irakatsi, beti ere Deustuko Unibertsitateak eskaintzen duen giro eta aukera unibertsitarioan.

1. Denboraren ardatzean, euskara lantzea izan zen Deustuko Unibertsitatean jorratu zen lehen aukera. Urteak dira —hogeita hamarren bat— Deustuko Unibertsitateak euskara-ikastaroak antolatzeari ekin ziola. Ikastaro hauek Euskal Filologia alorrean ezagutu zuten aurrerabideak nola euskara lantzeari dagokionez, hala unibertsitate-gaiok euskaraz irakastean dagokionez.

Hogei urte dira dagoeneko —1974— Deustuko Unibertsitatearen Bizkaitar Ikasketa Departamenduaren barnean Euskal Linguistika Katedra sortu zela. Bide honi jarraiki, aldian-aldian, piskanaka-piskanaka Unibertsitatea euskalduntze-bidean jarriaz, 1976-1977 ikastaroan, Euskal Filologia karrera ofizialki hasi baino bi urte lehenago, karrera honi zegozkion gaiak euskaraz emateari ekin genion Filologia modernoan gaien barnean. Geroztik, Euskal Filologia Bilboko zein Donostiako kanpusetan ikas daiteke.

Euskal Filologiaren ikasketak sakondu eta finkatu ahala, sortu dute ikerketarako aukera eta esparru berririk. Esaterako:

Ž Hirugarren Zikloak eskaintzen du gai hauek euskaraz lantzeko aukerarik. Doktoradutza euskaraz burutu nahi duenak Hirugarren Zikloko ikastaroetan beraietan has daiteke lehen urratsak ematen. Une hauetan izan badira Deustuko Unibertsitatean euskara hutsean landutako doktorego-tesiak.

Ž Bada, baita ere, Fonetika-Laborategia. Euskararen ahoskerari buruzko makina bat ikerketa egin da bertan.

Ž Azkenik, Itzulpengintzan trebatzeko masterra ere eskaintzen du. Bi urteko iraupenaz, euskara, gaztelera eta ingelesa itzulpen-gaitzat erabiltzen ditu.

2. Bigarren arloa euskara bera irakastea izan da. Arlo honek eragin handia izan du, ikasleria ugari bildu delako egin eskaintzara eta, gainera, ikastaro hauen seriotasunari esker euskara ikasi daitekeela frogatuta geratu delako.

1967. urtean sortu zen Euskal Kultur Mintegia (E.K.M.) Deustuko Unibertsitatearen egituren baitan. Nahiz eta sorreratik bertatik mintegi honek helburu zabalagoak izan, euskararen irakaskuntza bilakatu da urteen joanean mintegiaren egiteko nagusia.

1978-1979 ikasturtean Unibertsitateak bere esku hartu zuen E.K.M.-ren egitekoa. Horretarako Euskal Irakaslegoa deritzan Institutua sortu zuen Euskal Irakaslegoa Deustuko Unibertsitateak 1978an sortutako Zentrua da. Ordurarte Euskal Kultur Mintegiaren bitartez bertoko ikasle unibertsitariarentzat antolatzen ziren euskara ikastaroen ardura bereganatzen du, borondate zehatz batekin: ikaslegoak erakusten zuen euskalduntzeko eta alfabetatzeko gogoari eta beharri unibertsitateko esparruan modu akademiko eta emankorrean erantzutea.

Harrez gero, Deustuko Unibertsitateak bere Fakultate eta Eskoletan matrikulatzen diren ikasleei beren ikasketetarako ordu lektiboetan euskara ikasteko aukera eskaintzen die. Urte guzti hauetan gure Unibertsitatera etorri denak bere ikasketak burutzearekin batera euskalduntzeko edo euskaldun izanda bere hizkuntzan alfabetatzeko aukera izan du eta du gaur egun.

Euskal Irakaslegoaren garrantzia ezagutzeko modu zehatza da zenbakietara jotzea, urteko ikasleen eta hauen eskola-orduen kopuruetara jotzea alegia:

Ikasturtea	Ikasle-kopurua	Ordu-kopurua
1978-79	1561	178440
1979-80	1486	168480
1980-81	1674	192320
1981-82	2505	250500
1982-83	3115	311500
1983-84	3592	359200
1984-85	3932	393200
1985-86	3667	366700
1986-87	3440	344000
1987-88	3936	393600
1988-89	3341	334100
1989-90	2996	329560
1990-91	2986	328460
1991-92	3030	333300
1992-93	2801	337250

Ondorioak nabarmenak dira: neurritz handia da eta azpiegitura sendoa du.

Oinarrizko duen euskara eskolen antolaketaz gain Unibertsitatearen elebitarzteak sortutako beharrak eskatutako zenbait zerbitzu ditu dagoeneko prestatuak:

- itzulpen-zerbitzua.
- idazkaritza teknikoarekin harremanetan hizkuntz normalizazioak sortutako arazo zehatzei erantzuteko zerbitzua.
- Fakultateetako gaien irakaskuntzak beharrezko dituen hizkuntz prestaketa teknikoak eskaintzeko zerbitzua.

Jakin bagenekien Unibertsitatearen egin beharrik bereziena ez zela euskara irakastea, baina gure hizkuntzaren egoera ikusita, lehentasuna eginbide horri eman genion. Eta berrogeitik gora irakaslek, dedikazio osokoak, lan honetan dihardute. Oraintxe bertan Euskal Herriko euskaltegirik handiena edo handienetakoa da Deustukoa.

3. Igaro gaitzen euskaraz irakasteak dakartzan arazoak aztertzeraz. Badakigu, bai, euskararen normalkuntzarako egitekorik bereziena euskaraz irakastea dela.

Azal ditzagun lehen-lehenik zehaztasun batzuk gai honi buruz. Eta gero ikusiko ditugu arlo honek sortzen dituen eragozpenak.

Euskal Filologia alde batera utzita, Deustuko lehen helburua, ikasturte bakoitzean gai bat euskaraz jartzea izan zen. Helburu xumea dirudi baina uste baino garrantzi handiagoa du. Ikasturte batean gai bat euskaraz erabiltzen ohitzen bada ikaslea, beste gaiak ere maila akademikoan erabiltzeko erraztasuna lortzen du, hau da, eragin biderkatzailea sortzen du. Eta hori lau-bost urtetan egiten bada, uste baino etekin bobea atera dakioke. Helburu hau Fakultate gehienetan lortzen ari gara.

Beste helburu ausartagoetarantz ere joan, bagoaz. Hau da, ahal diren Fakultateak elebidun bihurtu, alegia, karrera guztia euskaraz ikasteko aukera eman.

Baina hori, talde edo sail bat baino gehiago dituzten karreretan bakarrik egin ahal izango dugu.

Hemen, hain zuzen ere, agertzen dira gure eragozpenik handienak: alde batetik ikasturte askotan euskaraz jakin eta ikasi nahi duen ikaslegoa urria da, bestetik, diru-laguntzarik gabe bideratu ezinezkoa, edo oso zaila behintzat.

Eta arazo hau dela eta, zerbait esan nahi nuke. "Kampus" deritzan berripaperean irakurri dut, EHUK duen lehenengo oztopoa irakasle elebidunak kontratatzeko "diru eskasia" dela. Guk zer esango genuke arlo honetan? Esan behar dut, eta eskerrak emanez, HABERen bitartez euskara irakasteko laguntza urtero jaso dugula. Baina orain gauden arloan, hau da, euskaraz irakastearen honetan, zentimorik ere ez. Egoera honek, diru aldetik, eragozpen larria sortzen digu. Talde arruntak eta txikiak bitan banatzeko erarik ez dago.

Hala ere, asmo, borondate eta nahiek oztopoei aurre eginez, euskaraz irakastearen esparru honetan eman dute fruiturik. Aurkeztu ditzadan datu batzuk: hirurogeita bost gai edo asignatura euskaraz ematen dira. Horiek irakasteko berrogei eta bost irakasle daude. Beste hamar bat elebidunak dira, oraindik euskaraz irakatsi ez badute ere. Euskal Irakaslegoan euskara erakusten duten irakasleak hartuko bagenitu —guztiak dira lizentziatuak— ehunen bat irakasle elebidun ditugu Deustuko Unibertsitatean. % 15.

B. AURREERA BEGIRA

Eginak egin eta joanak joan Deustuko Unibertsitateak euskalgintzan aurrera egiteko asmo bizia du. Batetik, ez dakitenei euskara ikas dezaten bitarteko egoki eta profesionalak luzatuz une hauetan bigarren hizkuntzen irakaskuntzan eza gutzen diren metodo modernoak erabiliz; bestetik, euskaraz irakasten diren unibertsitate-gaien eremua zabalduz, eta bereziki, euskaraz bizitzeko aukera egin dutenei unibertsitate-ra datozen unetik euren ikasketak Hirugarren zikloan doktordutzarekin amaitzen dituztenerarte ahalik eta irakasgairik gehien euskaraz lantzeko bidea eskainiz, irakaskuntza orori eta, jakina, unibertsitarioari eskatzen zaion maila gordez, gaur arte, ehun urtean barrena zabaldutako eta erakutsitako ildoari eutsiz, beti bezala, hobetzea goiburu, bai ikasgai den jakintza-alorraren ikuspuntutik, baina baita berau adierazteko beharrezko den tresnaren erabilera zuzena, egokia, aberatsa eta zehatza bermatuz, azken helmuga gogoan: unibertsitate-ikasketak bere osoan euskaraz lantzeko parada eskaini.

Ezarritako helburu hauek bete daitezten eta helburu horietara iristeko bide eraginkorrak jar daitezten, Deustuko Unibertsitateak badu batzorde berezia Euskara-Batzordea izenez ezagutzen dena eta Unibertsitateko Euskara-Erretoreordearen lehendakaritzapean biltzen dena. Batzorde honen zeregin nagusia gorago aipatu diren helburu horietara iristeko Deustuko Unibertsitateak landu behar duen hizkuntz politika zehaztean datza.

Horrela Deustuko Unibertsitateak bat egin nahi du Euskal Herriak bere buruari opa izan dizkion helburuekin. Etorkizuneko gizartea eleantza izango da ez bairik gabe. Datorkigun gizarte horretako gizon-emakume adituen prestakuntzan bere egitekoa zintzo eta zehatz-mehatz bete nahi du Deustuko Unibertsitateak. Baita pertsonon hizkuntz prestakuntzan ere. Zer esanik ez, euskaraz bizitzeko aukera egin eta, biharko gizarte horretan, gure herri-hizkuntzan aritu nahi dutenen prestakuntzan. Munduari atek zabal diezaizkiogun, etxea gure-gurea dugun soroan oinarrituz.